Nº 45



Universidad del País Vasco   Euskal Herriko Unibertsitatea

ENPRESA EKONOMIA: SARRERA

Batez besteko heltze-aroa eta errotazio/maniobra funtsa


2012/2013 IKASTURTEA

Irakaslea: Ana Beraza

1. BATEZ BESTEKO HELTZE-AROAREN KALKULUA

Aktibo korrontearen zikloari ustiapeneko zikloa edo "dirua-salgaiak-dirua" zikloa deitzen zaio. Bere iraupena batez besteko heltze aroa da. Batez besteko heltze aroak zera adierazten du: ustiapen zikloan, lehengaietan hain zuzen, moneta unitate bat inbertitzen denetik berriz ere berreskuratu arte igarotzen den denbora.

1.1. USTIAPEN ZIKLOKO FLUXUAK




Bateaz besteko heltze-aroa prozesu honen iraupena da.

1.2. USTIAPEN ZIKLOAREN DESKRIBAPENA

Zikloa lehengaiak erostearekin hasten da. Lehengaiak biltegira sartzen dira kostu prezioan, hau da, erosketa prezioan. Gero ekoizpen prozesuan kontsumitu egiten dira eta bere kostuak, beste faktore batzuekin (eskulana, energia, aktibo finkoaren amortizazioa,...) batera, produktu erdi bukatuen kostuak erabakitzen dute. Horiei produktu bukatu bihurtu arte faktoreak gehitzen zaizkie eta kostuak egotzi. Produktu bukatua produktu bukatuen biltegira sartzen da, horren balioa, fabrikazio bidean diren produktuen izakinenak bezala, barneratuak dituzten faktoreen kostuak batuz kalkulatzen delarik.

Produktu bukatuak saltzean, produktu bukatuen biltegiko balio txikiago izango da eta eskura kobratu ezean bezeroekiko kreditua handiagoa izango da. Kreditu hori, kostuari mozkin marjina gehituz kalkulatuko da. Eta bukatzeko, bezeroekiko kredituen saldoaren zenbatekoa kobratu ahala txikiagotuz joango da.

1.3. ZIKLO HONEN IRAUPENAREN KALKULUA



$$\mathbf{B.H.A._E = B.H.A._b + B.H.A._f + B.H.A._s + B.H.A._k}$$

Nola kalkulatzen dira B.H.A.$_E$ –ren osagaiak?

B.H.A.$_b$

B.H.A.$_b$ | Enpresak batez-besteko izakin maila kontsumitzeko behar duen egun kopurua adierazten du.

B ← Urteko lehengai kontsumoa

b ← Biltegiko batez-besteko izakin maila

$\frac{B}{b}$ ⟵ Urtebetean lehengaien batez-besteko stock-a kontsumitzen den aldi kopurua. Honi deituko diogu: $\mathbf{n_b}$

$$\frac{365}{n_b} \rightarrow \boxed{365 \times \frac{b}{B} = H.A_b}$$

B.H.A.$_f$

B.H.A.$_f$ | Produktua fabrikatzeko behar den denbora adierazten du.

F ← Urteko produkzio totalaren kostua (lehengai + beste faktoreen kontsumoa)

f ← Fabrikazio bidean dauden produktuen batez-besteko izakin maila

$\frac{F}{f}$ ⟵ Urtebetean fabrikazio bidean dauden produktuen batez-besteko stock-a berritzen deneko aldi kopurua. Honi deituko diogu: $\mathbf{n_f}$

$$\frac{365}{n_f} \rightarrow \boxed{365 \times \frac{f}{F} = H.A_f}$$

B.H.A.$_s$

B.H.A.$_s$ | Produktu bukatuen batez-besteko stock-eko artikuluak saltzeko behar den batez besteko denbora adierazten du.

S ← Urteko salmenta bolumena, kostu prezioan baloratua

s ← Produktu bukatuen biltegiko batez-besteko izakin maila, kostu prezioan baloratua.

$\frac{S}{s}$ ⟵ Urtebetean produktu bukatuen izakinak berritzen direneko aldi kopurua. Honi deituko diogu: $\mathbf{n_s}$

$$\frac{365}{n_s} \rightarrow 365 \times \frac{s}{S} = H.A_s$$

B.H.A.$_k$

B.H.A.$_k$ | Bataz beste bezeroei kobratzeko behar den egun kopurua.

K ← Urteko salmenta bolumena, bezeroei kobratutako prezioan baloratua. Hau da, fabrikazio kostuak + mozkin marjina

k ← Bezeroek enpresarekin duten zorraren batez-besteko balioa

$\frac{K}{k}$ ⟵ Urtebetean bezeroen batez-besteko zorra berritzen deneko aldi kopurua. Honi deitzen zaio: $\mathbf{n_k}$

$$\frac{365}{n_k} \rightarrow 365 \times \frac{k}{K} = H.A_k$$

$$BHA_E = HA_b + HA_f + HA_s + HA_k$$

$$BHA_E = 365 \times \frac{b}{B} + \frac{f}{F} + \frac{s}{S} + \frac{k}{K}$$

Iturria: Curso de introducción a la economía de la empresa. Egilea: Eduardo Pérez Gorostegui

BHA_E-ren zati bat faktoreen hornitzaileek finantzatzen dute enpresari ordainketak beranduago egiteko aukera emanaz. BHA_E-tik hornitzaileek batez bestez finantzatzen duten egun kopurua edo batez-besteko ordainketa aroa kenduz, BHA finantzarioa lortzen dugu.

$$BHA_F = BHA_E - BHA_h$$

$B.H.A._h$

$B.H.A._h$ | Batez-besteko ordainketa aroa edo hornitzaileek batez bestez finantzatzen duten egun kopurua.


H ← Urtero erosten diren lehengai bolumena


h ← Hornitzaileekiko batez-besteko saldoa

$\frac{H}{h}$ ← Urtebetean hornitzaileekiko saldoa berritzen deneko aldi kopurua
Honi deituko diogu: $\mathbf{n_h}$

$$\frac{365}{n_h} \rightarrow 365 \times \frac{h}{H} = B.H.A_h$$

HELTZE ARO EKONOMIKOA (ESKEMATIKOKI)





Iturria: Curso de introducción a la economía de la empresa. Egilea: Eduardo Pérez Gorostegui


Heltze aroaren kalkulua eta azterketa, baita horren bilakaerarena ere, enpresaren jarduera ekonomikoa azaltzeko oso tresna baliagarria da. Enpresari aro ezberdinak (biltegiratzea, fabrikazio-aroa, salmenta eta kobratzea aroa) txikiagotzea interesatuko zaio, horrela bere errentagarritasuna handitu egingo delako.

Zergatik handituko da errentagarritasuna? Alde batetik, aro ezberdinen iraupena murriztuz gehiago ekoiztu eta saldu ahal izango du. Hau da, produktibitatea gora egingo du eta ondorioz errentagarritasuna ere bai. Bestetik, beti ez da posible gehiago saltzea. Baina, aro ezberdinak txikiagotuz enpresak izan beharreko aktiboak ere gutxiago izango dira. Eta honen ondorioz, aktiboen aprobetxamendu hobea lortuko da, hau da, aktiboen errotazioak handitu egingo dira.

$$E.E = \frac{M.E}{Aktiboa} = \frac{M.E}{Salmentak} \times \frac{Salmentak}{Aktiboa}$$

Marjina x Errotazioa (↑)

Eta baita ere, aktiboa finantzatzeko baliabide gutxiago beharko dira eta honen ondorioz errentagarritasun finantzarioa handitu egingo da.



2. MANIOBRA FONDO MINIMOA

Heltze aroaren kalkulutik abiatuta, enpresaren maniobra fondoa minimoa zein izan behar den jakin dezakegu. Suposatzen badugu enpresaren aktibo korrontea ondoko elementuez osaturik dagoela:

b = Lehengaien izakinen batez-besteko maila

f = Produktu eri bukatuen izakinen batez-besteko maila

s = Produktu bukatuen izakien batez-besteko maila

k = Bezeroekiko kredituen izakinen batez-besteko maila

d = Enpresak mantendu nahi duen diruzaintza/altxortegi maila

h = Hornitzaileekiko batez-besteko kreditua

Maniobra fondo minimoaren formulak

$$M.F_{\text{minimoa}} = A.K - P.K = d + b + s + k + f - h$$

$$M.F_{\text{minimoa}} = d + \frac{B}{365} \times HA_b + \frac{F}{365} \times HA_f + \frac{S}{365} \times HA_s + \frac{K}{365} \times HA_k - \frac{H}{365} \times HA_h$$

Eta suposatzen badugu **B = H** :

B ← Urteko lehengai kontsumoa

H ← Hornitzaileei urtean erositako lehengai kopurua

$$M.F_{\text{minimoa}} = d + \frac{B}{365} \times (HA_b - HA_h) + \frac{F}{365} \times HA_f + \frac{S}{365} \times HA_s + \frac{K}{365} \times HA_k$$